

# 1. BALIOA

## LEHIAKIDEEZ DESBERDINDU NAHI BADUZU

Bezeroarentzat balorea sortzen duten elementuak:

### **Prestazioak**

Esaterako, punta puntako, merkatuko azken kamarak ditugu itsasontzi guztietan segurtasuna bermatzeko. Honez gain, goi mailako alarmak ezarri ditugu denda guztietan inor sar ez dadin. Gainera, esku dirua ganean izan beharrik ere ez dago zerbait ordaintzeko ez eta txartela ganean eraman beharrik ere, mugikorrekin ordain dezakezu orain. Mugikorrean aplikazioa instalatu eta kito; ordain makinan jarri segundo gutxi batzuetan eta listo.

### **Diseinua**

Esan beharra dago, orain dela gutxi berriztatu ditugula gure itsasontziak. Itxura bikaina dute, hori zen gure helburua eta lortu da. Gainera, hauek ikusitakoan, bertara sartzeko gogoia pizten zaizu, pistina ikusgarriak, balkoi ugari eta bere tamaina haundi bezain itxura bikaina ikus dezakezulako.

### **Marka / Statusa**

Gure kasuan ordea, munduko kruzero sailik ospetsuenetakoa garela esango genuke. Azken urteotan, gorakada izugarria ikusi dugu eta azparragarria da gure jatetxetan ditugula munduko chef onenatariko batzuk, eta honen ondorioz askozaz ere erakargarriagoa egin da bezeroentzat. Gainera, etxeko guztietan pentsatuta eginda dagoelako ere ospetsua egin da beste askok ez dutelako balibide bikain hau.

### **Prezioa**

Prezioei dagokionez hainbat beherapen eta deskontu eskaintzen ditugu. Talde handiei beherapenak egiten zaizkie, honela sektoreko beste enpresei konpetentzia eginez. Kontuan hartuz familientzat prestatutako itsasontziak ditugula, jaioberri eta 6 urte bitarteko umeak %50 deskontuak izan ohi dituzte. Guztia kontuan hartuz, zerbitzuak ahalik eta prezio hoberenean eskaintzen saiatzen gara.